


## Euskal AEko BPGk % 0,2 egin du aurrera, eta enpleguak % 0,3 hiruhileko batetik bestera, 2022ko hirugarren hiruhilekoan

**2021eko hirugarren hiruhilekoarekin alderatuta, hazkundera % 3,9koa da BPGren kasuan, eta % 2,0koa enpleguarenean**

Euskal AEko Barne Produktu Gordina (BPG) % 0,2 igo da 2022ko hirugarren hiruhilekoan aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, Eustatek egindako Hiruhileroko Kontuen Aurrerapenaren zenbatespenen arabera. 2021eko hirugarren hiruhilekoarekin alderatuta, Euskal AEko BPG % 3,9 igo da.



Iturria: Eustat. Hiruhileroko kontuak. Aurrerapena

Aurrerapen hau egiteko unean eskura zegoen koiunturazko informazio ekonomikoaren arabera, Euskal AEko ekonomiaren sektore nagusietako jardueraren urtetik urterako desazelerazioa gertatzen ari da.

Enplegua, dedikazio osoko baliokidetzako lanpostuetan neurtua, % 0,3 gehitu da aurreko hiruhilekoaren aldean. Enplegua hiruhileko batetik bestera hazi den ondoz ondoko bederatzigarren hiruhilekoa da. Bestalde, aurreko urteko hiruhileko berarekin alderatuta, lanpostuen kopurua % 2,0 igo dela zenbatetsi da.

Datorren **abenduaren 2an** Eustatek BPGren eta enpleguaren zenbatespen bereiziak argitaratuko ditu 2022ko hirugarren hiruhilekoko Hiruhileroko Kontuetan, Aurrerapen hau egiteko unean eskura ez zegoen koiunturazko informazioa behin sartuta.

---

**Informazio gehiagorako:**

*Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística*

*Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz*

*Prentsa-zerbitzua: [servicioprensa@eustat.es](mailto:servicioprensa@eustat.es) Tlf: 945 01 75 62*